


TABAKO-KONTSUMOAREN PREBALENTZIA OROKORRAK EUSKADIKO 15 ETA 64 URTE BITARTEKO BIZTANLEEN ARTEAN

Oinarrizko datuak


1 Grafikoa. Tabako-kontsumoaren prebalentzia orokorren bilakaera 15-64 urteko biztanleen artean. Euskadi 2013-2024



Iturria: Espainiako Alkoholari eta Drogei buruzko Inkesta (EDADES). Euskadirako datuak.

- 2024ko datuek erakusten dute aurreko aldiarekin alderatuta (2019/20) tabakoaren duela gutxiko eta egungo kontsumoak behera egin duela Euskadin 15-64 urteko biztanleen artean. Azken 30 egunetako kontsumoa % 18,4 murriztu da eta eguneroko kontsumoa % 35,6..


2 Grafikoa. Azken 30 egunetako eta eguneroko kontsumoaren bilakaera, 15 – 64 urteko biztanleen artean. 2013-2024



Iturria: Espainiako Alkoholari eta Drogei buruzko Inkesta (EDADES). Euskadirako datuak.

- 2017 eta 2020 urteen artean, Euskadin, kontsumoaren prebalentzia Espainiako batez bestekora hurbiltzen bazen ere, azken aldian beherakada handiagoa izan da Euskadin eta, gaurkoz gaur, azken hileko eta eguneroko kontsumoaren prebalentziak Estatuko azpitik kokatzen dira berriz ere. Zehazki, egungo kontsumoa Espainiako batez bestekoa baino lau ehuneko txikiagoa da, eta eguneroko kontsumoa 5,5 ehuneko txikiagoa.


3 Grafikoa. Tabako-kontsumoaren prebalentzia orokorrak 15-64 urteko biztanleen artean, sexuaren arabera. Euskadi 2024



Iturria: Espainiako Alkoholari eta Drogei buruzko Inkesta (EDADES). Euskadirako datuak.

- Aukeratzen den kontsumo-adierazlea dena delarik, gizonen artean tabako-kontsumoaren prebalentzia zertxobait handiagoa da emakumeen artean baino. Nolanahi ere, aldeak aurreko urteetan baino txikiagoak dira, batez ere eguneroko kontsumoaren adierazlea kontuan hartzen denean: 15-64 urteko gizonen % 21,2ek eta emakumeen % 19,5ek erretzen dute egunero Euskadin..

4 Grafikoa. Azken 30 egunetako eta eguneroko kontsumoaren bilakaera eta 15-64 urteko biztanleen artean, sexuaren arabera. 2015-2024



Iturria: Espainiako Alkoholari eta Drogei buruzko Inkesta (EDADES). Euskadirako datuak..

1 Taula. Tabakoa kontsumitzen hasteko batez besteko adinaren bilakaera 15-64 urteko biztanleen artean, sexuaren arabera. Espainia eta Euskadi 2013-2024

	2013	2015	2017	2019/20	2024
Espainia	16,3	16,3	16,3	16,4	16,6
Euskadi	16,4	16,4	16,6	16,6	16,4
Gizonak	--	16,0	15,9	16,0	16,3
Emakumeak	--	16,6	16,7	16,8	16,6

Iturria: Espainiako Alkoholari eta Drogei buruzko Inkesta (EDADES). Euskadirako datuak.

- Azken hileko kontsumoari dagokionez, sexuaren arabera aldeak nahiko egonkor mantendu dira azken urteetan; aldiz, eguneroko kontsumoa intentsitate handiagoz murriztu da gizonen artean, eta, horren ondorioz, gizon eta emakumeen prebalentziak parekatu egin dira.
- Ez da ia alderik ikusten tabakoa kontsumitzen hasteko adinari dagokionez, Euskadin 16,5 urte inguruan mantendu baita. Batez beste, 15-64 urteko emakumeak gizonak baino zertxobait beranduago hasi dira tabakoa kontsumitzen, baina azken aldiko bilakaera positiboagoa izan da gizonen artean, adierazle honetan ere generoaren arabera aldeak berdinduz doazelarik.